

## Donostia Kultura EEP 2014ko deialdia. Irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru laguntzak. Diru laguntza eskaerak aurkezteko jarraibideak

### Ezinbestean irakurri beharrekoa

Diru laguntzen deialdi hau arautzen duten oinarriak arretaz irakurri behar dira. (Oinarri Orokor eta Espezifikoak)

Argibide hauek osatu dira diru laguntza eskaerak betetzen laguntzeko helburuarekin. Oinarri orokorrek eta/edo espezifikoekin desadostasunak badaude, azken hauetan adierazitakoa beteko da beti.

### 2014ko berrikuntzak

Aurreko urteetakoekin alderatuz, 2014ko Donostia Kulturako Oinarri Espezifikoek zenbait berrikuntza dituzte:

- Hiru diru laguntza lerro bereizten dira (Oinarri Espezifiko 1. art.):
  - Zinema, Arte Eszenikoak eta Musika
  - Liburutegiak eta Museologia
  - Kultur Ekintza

Donostia Kulturak –eta ez entitate eskatzaileak– erabakiko du eskaera bakoitza zein lerrori dagokion.

- Diruz lagundu ezin diren programak eta gastuak. Zeharkako gastuak\*: Proiektuaren administrazioari loturiko zeharkako gastuen kontzeptu gisa, aurrekontuaren% 8 soilik erabili ahal izango da, gehienez.

\*Zeharkako gastuak: hornidurako gastu orokorrak (ura, argia, telefonoa, etab.), administrazio langileen gastuak, gestoriako gastuak, elkartearen lokala alokatzeko eta/edo mantentzeko gastuak, aseguruak, etab.

- Aurkeztu beharreko agiriak. Oinarri Orokorretako 5. artikuluan xedatutako agiriez gain, Oinarri Espezifikoetako 3. artikuluan zehaztutako dokumentuak aurkeztu behar dituzte elkarrekin.
- Diru laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko eta baloratzeko irizpideak. (Oinarri Espezifiko 5. art.)

### Aurkeztu beharreko agiriak

Entitateek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte (Oinarri Orokorren 5. art eta Espezifiko 3. art.):

1. 11200n ereduaren arabera osatutako diru laguntza eskaera
2. Proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizko agiriak, eta gastuen eta diru sarreren aurrekontua (11201n ereduak).

3. Zerga betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeneko ziurtagiriak, ofizioz egiteko baimena ez badio ematen udalari eskaeran edo zergak Gipuzkoako Lurralde Historikoan ordaintzen ez baditu.
4. Elkartearen aurkezpen labur bat, bere ibilbidea, jarraitutasuna, egonkortasuna eta dedikazioa, eta beste erakunde batzuekin duen harremana ezagutu eta baloratzeko.
5. Elkartearen baitan euskararen erabilera sustatzeko irizpideak
6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako irizpideak elkartearen egituran eta funtzionamenduan.
7. Sinatzaileen kargua ez badator bat erregistroan agertzen denarekin, izendapen eguneratuen egiaztagiria aurkezteko eskatuko zaio entitateari, eta egiaztagiri hori espedientearen jasoko da.
8. Herri Entitateen Erregistroan izena emanda ez dauden entitateek, osagarri gisa, agiri hauek aurkeztu behar dituzte:
  - Beharrezkoa izanez gero, dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
  - Entitatearen estatutuen edo araudi erregulatzaileraren fotokopia.

## Oroitzeko

- Entitate bakoitzak, gehienez, bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu diru laguntza lerro bakoitzean.
- Proiektu edo jarduera bakoitzak jasoko duen diru laguntzak ez du 2.000 euroko zenbatekoa gaindituko.
- Formularioetako eremu guztiak bete behar dira. Formulario horiek idazkari eta lehendakari karguak dituzten pertsonak sinatu behar dituzte, euren izen-abizenak eta NAN zenbakiak adieraziz.
- Eskaerak edo honekin batera aurkeztutako agiriak akatsen bat badute edo osatuta ez badaude, hamar eguneko epea emango da oker dagoena zuzentzeko. (Oinarri Orokorren 8. art.)

## Logoaren erabilera

Diruz lagundutako jarduera zabaltzeko ekintzetan Donostia Kultura EEPk, diru laguntza bidez, lagundu duela azaltzeko, Donostia Kulturaren logoa erabili beharko da. Logo hori Donostia Kulturaren [web orrian dago, Berriak/Prentsa bulegoa/ Irudi korporatiboa atalean.](#)

## Zalantzak

Zalantzarik baduzue, Donostia Kulturara zuzendu zaitezke, 943481150 telefonora hots eginuz edo [donostiakultura@donostia.org](mailto:donostiakultura@donostia.org) helbidera mezua bidaliz.